

Normalkeria

TXILLARDEGI



ATUTXAK debekatu egin dio Herri Bataunari ostegunetako manifestazioa. Baina ostiralero aspaldidanik Senideak taldeak Donostiako kaleetan barrera egiten duena zilegi da.

Zenbaterik daki, bestalde, ostiralero egiten den ibilketa hori egiten denik? Maizago ikusten ditugu Cercadillo eta gainerakoak prentsan eta telebistan, presoan alde astero ehunka biltzen diren horiek baino.

Aldaiaren alde antolatzen diren ekintzek, agintean onarpena dute. 700 euskal presoek eta 2.000 errefuxiatuek, berriz, agintean gaitzespena: instituzio autonomikoena eta estatalena. «*Deux poids, deux mesures*» esan ohi da frantsesez.

Hori guztia ez da 'normala'. Aldaiarekin gertatzen dena ez da normala, kezkarria da, arbuigarria da. Ziur.

Baina herri honek bere burua nahi duen bezala ezin antolatzea ere, ez da normala.

Badantzugu erantzuna: «gehiengoak hori nahi du. Abertzaleok gutxiengoaz zarete». Edo-ta, maizago: «*acceptad las reglas del juego*». Zein joko-lege?

Garbikiago: «onar ezazue Euskal Herriaren zatiketa; onar ezazue ikidaziora eramaten zaituen legetasuna. Esan ezazue behin eta betirako normalkeria hau, normaltasuna dela».

Oraino errazago: «onar ezazue, adibidez, ETBren bidez Euskal Herria erakitzen ari garela. *El resto se os dará por añadidura*».

Eta herri honetan bi eta bi best direla sinesten ez duen jende asko dagonez, 'gehiengo' famatu horren 'hunil-legea', enbutu-legea alegia, baten 'normalak' ez diren gauzak gertatzen dira egunero.

Baita gertatuko ere, benetako erremedio politikoa azkarrik abiatuko ez direno.

Heriotzez

UNAI ITURRIAGA



BIZITZA puta bat baino ez dela entzun nion behin norbaiti. Gero Andoni Egañari entzun nion «Zeinen puta den patua esaten».

Bizitza, hiltzeko jaitzen diren gizaki eta emakumeek amasten irauten duten tartea omen da beste batzuentzat. 'Jaunak' bere alborra noiz deituko egoten dira beste batzuk, eskuak paparrean gurutzatuta, ezpainak more eta begiak lauso, zeruko argiak noiz zipristinduko zain.

Euskal Herri hontan hamaika aldiz entzun dugu Aberria ala hil oihua, eta beste hamaika bidean erori ere. Eta nik negar egin dut maizetan, edo gorrotoz hortzak estutu bestetan. Eta zergatik ez? Herri hontan heriotza bat baino gehiago ospatu da txanpainetan. Gaur egun ez ordea. Gaur egun heriotza 'Heriotza' bihurtu da eta ezerk ezin justifikatu dezake. Bien bitartean minuturo milaka gizaki eta emakume erahiltzen ditugu guk lehenengo mundukoak. Baina horrek ez du ajolik! Gainera gehienetan beltzak izaten dira, edo horiak, edo marroiak...

Txepetx-ek esaten duela ez asko gure herri hau arduratzen zela hildakoen gurtzaz bizien arteko arazoez baino. Beharbada bai, askotan merezi ere gehiago merezi dute.

Mikelek, orain urte batzuk ezagutu nuen lagun hark, bere burua hil zuen atzo. Baina gurea ez, eta bertan biziko da barnuean betiko... betirako!

HEMEROTEKA

EL CORREO ESPAÑOL

Itxaropenerako akordio bat

Eusko Jauriritzak, Confebasket eta sindikatuek euskal komunitate autonomoan Formazio Iraunkorraz sinaturiko akordioak garrantzi handia du berez, eta ez du oharkabean gelditu behar. Gaia, langileen prestakuntza iraunkorra, estrategiko deitzen ditugun horietako bat da. Hitzartutako ereduak baditu **elementu berritzaile** batzuk euskal errealtateari eta bertako heziketa beharrei egokitzeari dagokionez. Baina badira akordioaren beste gako batzuk ere aipatzea merezi dutenak; artikulu honetan horietako batez ariko naiz.



—Baina... eskubidin hauek urrezkoak dira! —Corcuera jaunaren mesede.



ANGEL/GUILLERMO / EL MUNDO

Kontua ez da akordioa absolutuzatzea edo gehiegi goralteza, baina herri hau ez dago ohiuta halako adostasun maila lortzera, eta horrelako bat erdiesten denean, lan serio eta luze baten ondoren, ematen du esperantza izateko arrazoirik. Gogoeta honekin loturik, sinatu dugun akordioak balio izan du nabarmen uzteko euskal sindikatuen gehiengoak baduela borondate argi bat lan harremanetako euskal esparruaren aurrerapena eta garapena batera garrri egiteko jarrera irekiekin, mugimendu sindikalaren osotasunarekiko elkarlanean aritzeko jarrera malguekin.

Ikusi egin behar da oraindik ea antzeratsu gertatzen den sindikalismo abertzaleak gehiengo hori ez duen ingurutzen. Eta

hori esatean aipatzen dut Nafarroa eta aipatzen dut Espainiako estatua oro har, eszenario horretan ikusten ari baikara kutsu zentralistako itzul-uhin bat, zeinek, elkartasuna aitzakia harturik, eratu uniforme bat ezarri nahi duen, oinarritzko printzipio demokratikoak ez betetzeaz gain gero eta eragin-gabeago ageri dena.

JOSE ELORRIETA

ZUZENDARIARI

LABek eta ELAk ikastoletako Lan Hitzarmenaren falta salatzen dute

LABek eta ELAk ikastoletako sektoreko sindikatu biok zera salatu nahi dute iritzi publikoaren aurrean;

1995eko urriaren haseran egonik ere, ikastoletako sektoreko bi patronalek (EIBk eta Partaidek) azaldu duten jarrera itxiaren ondorioz, eta nahiz eta sindikatuok Lan Hitzarmenaren negoziatzea behin eta berriz exigitu duten, ez da oraindik Lan Hitzarmenaren Mahai Negoziatzailea eratu ere egina.

Izan ere, EIB patronalak Partaide mahaiaren egotearen baldintza ipintzen duenean, Partaidek, egoera ekonomiko balizko baten aitzakian, eseritzeari ere uko egiten baitio, publikoa den arren Hezkuntza Sailak ia 1.000 milioi presupuestatu dituela ikastolentzat. Jadanik, 93an burutu zen publikazio prozesuak eragin zuen inestabilitate ekonomikoa gainditzeko unea dela deritzote; izan ere, ez baitute onartzen egoera ekonomiko larria langileen kontura bere lan baldintzak murriztuz konpondu nahi izatea. Ikastoletako langileok gaur egun jasaten duten egoera guztiz salagarria da. Bai, irakaskuntza publikoko langileek eta baita

privatukoek ere euren 1995eko Lan Hitzarmena negoziatu eta sinatu dutenean, ikastoletako langileok 94ko Lan Hitzarmenaren igoerarekin daude eta patronalaren jarrera itxi eta salagarri honen ondorioz, *de facto* izozketa salarria baten aurrean aurkitzen dira.

Mobilizazio prest

Egoera honen urrean LAB eta ELA berriro ere Lan Hitzarmen duin baten beharra aldarrikatu beharrenean aurkitzen dira eta EIB nahiz Partaideri mahai negoziatzailea eratu dadin exigitzen diete. Hala ez balitz, mobilizazioetara joko dute, eskura dauzkaten neurri guztiak erabiliko dituztelarik.

DONOSTIAKO LAB ETA ELA

Hitzaren garrantzi xumea

Gasteizko Legebiltzarreko bilkuren igorpenean hitzaren eta hizkuntzaren erabilerean inguruan ikusentzundako zenbait xehetasun azpimarratu nahi nituzke:

Legebiltzarreko Lehendakariaren zarkaria eta zorrozkeria (batez ere IUko bozeramaleari arratsaldeko hitz-txanda kentzerakoan erakutsi zuena); jeltkideen bozeramalearen mintzaldi bikaina (bere alderdiaren politikarekin eta berak esandako beste zenbaitekin ados ez egon arren);

PSE-EEkoaren gaztelera kaskarra: Buesak ez baitiute, besteak beste, gaztelera 'omen' (*debe de*) eta 'behar izan/ukan' (*debe*) bereizten (euskara jakingo balu ez lituzke horren erraz nahasiko); aldiz, EAkoaren gaztelera zuzen eta aberatsa (ez nuen euskaraz egindako eskuhartzea ikusentzuteko aukerarik izan), eta baita ere Buesari erantzuterakoan erakutsitako gaitasun dialektiko-diplomatikoa.

Eta amaizteko, uste dut —ez gertzea zilegizko jarrera izanik ere— ezker abertzaleak ez liekeela uko egin behar herritarren aurrean gertzeko eta hitz egiteko dituen aukera esketzea (borroka instituzionala indartu eta bere komunikazio-politika hobetu nahi baditu bederen).


X.I.E.

Arrasate (Gipuzkoa)

Oharra:

Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 20 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANen zenbakia ageratu beharko dira. Laburu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea.

GAIA JARRITA



Bigarren proba nuklearrak

Bigarren aldiz Moruroari gaitza dakarren eztanda sari, europate ta amerikararak mingain luze, esku nagi. Boteredunek bihurtu nahi ez jaun Chiracen salatari, inork tintik ez inori, norberak kontu atera beza zeren seinale den hori.

MAIALEN LUJANBIO

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90
ISSN 1134-640X



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: INAKI URDIA

Zuzendaria: MARTXELU OTAMENDI

Gerentse: FERNANDO FURUNDARENA

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egoitza nagusia: Gudiarri etorbidea, 2/g / 20140 Andoain
☎ 410 40 46 / Fax: 410 37 15 / Publizitateko faxa: 300 707
Arabak: San Antonio, 20-1. zerker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Fax: 23 38 73
☎ Publizitate: 13 19 65
Nafarroa: Inste Manastergia, 45-13. esk. / (Iritzi dutea) / 31011 Iruña
☎ 17 80 78 / Fax: 17 80 77 / ☎ Publizitate: 17 66 86
Bizkaiak: Zabalburu Enparantza, 2-1. zerker. / 48003 Bilbo
☎ 410 40 46 / Fax: 410 37 15 / ☎ Publizitate Orkoma: 410 38 55
Publizitate Lokala: 410 38 46
Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1 / 5013 Potes
kuxantia, / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11